

## HERRITARRENTZAT OHARRA

Kaixo, herrikide!

Lerro hauen bitartez, Trianako jaiak direla eta, herrian sortu den ardura, nahasmen edo zalantzak argitzera natorkizue.

Bertan hartutako erabakiak, ekainaren 19an, ostiralean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Eusko Jaurlaritzak argitaratutako lege dekretuan daude oinarrituta. Osasun Sailburu den Miren Nekane Murga andereak sinatzen duen lege dekretua da.

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/06/2002421e.pdf>

Dekretu horretan, inolaz ere ez dira debekatzen kultura ekitaldiak edota jaiak. Normaltasun berrira egokitutako neurriak jasotzen dira bertan.

Azken asteotan hainbat mezu eta dei elkarbanatu ditut Trianako jai batzordeko kideekin, baita aurrez aurreko bi bilera ere, azken erabakia hartu aurretik.

Ekitaldi guztien nondik norakoak txosten batean jasota ekarri ditu bilerara jai batzordeak: egitaraua osorik, protokolo orokorra, ekintza bakoitzeko protokoloa eta aforoa, aforoaren planoak, tabernaren funtzionamendua (terraza formatua), tabernaren ordutegia, hesiekin mugatutako neurriak, eta abar luze bat. Hori guztia posible egiteko udal baliabideen zerrenda ere landu dute, eta halaxe jaso da eskaera Udalean.

Kultura eta sormen ekitaldiak bultzatu behar ditugula esaten jardun dugu konfinamenduak iraun bitartean. Eta, haurrentako ekitaldiaz, herriko musikariez, sortzaileen artisau azokaz, mus txapelketaz, auzotarrentzat hitzorduez eta kanpoko kontzertu batez gozatzeko aukera eskainiko du Trianako jai batzordeak.

Udalak antolatzen dituen ekitaldiek bakarrik balio al dute? Zergatik ez auzo batek edo eragile batek egindako ahalegina eskertu? Zein da udalak eta Trianako jai batzordeak herritarren eskura jarritako egitarauaren arteko ezberdintasuna? Dekretuaren betebeharrei erantzuten diotenez, ez dago ezberdintasunik.

Dekretua beteko denaren hitzarmen bat ere jaso dugu udalean. Eta ez dutela beteko pentsatzeko aurrekaririk ez daukadenez, nire konfiantza eskaini behar diet antolatzaileei.

Horren arriskutsua bada, zergatik ez ditu dekretuan era honetako ekitaldi guztiak debekatzen Eusko Jaurlaritzak edo Murga andereak? Noski, uztailaren 12an hauteskundeak dira.

Bukatzeko, badakigu garai zailetan murgilduta gaudela. Horregatik, norbanako bakoitzari arduratsu jokatzea dagokigu, eta auzo batzordeak haren egitaraua ahalik eta egokien bete dezan laguntzea, bertan ikusiko ditugun kartel zein antolatzaileen ahozko mezuei zintzoki erantzunez.

Horregatik guztiagatik, Trianako Jai Batzordeari aurkeztutako egitaraua baimentzea erabaki da Tokiko Gobernu batzordean.

**Iñaki Olalde Altzelai**

***Oñatiko Udal Gobernuaren izenean***